



**AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MUSIKAKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZAK, KONPOSIZIO, ZUZENDARITZA, INTERPRETAZIO ETA PEDAGOGIA ESPEZIALITATEETAN, ARAUTZEN DITUEN EKAINAREN 25EKO 368/2013 DEKRETUA ALDATZEKO XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEKO DENA.**

Urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak, urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena, eta uztailearen 26ko 628/2022 Errege Dekretuak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa aplikatzeko zenbait errege-dekretu aldatzen dituena; abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak Hezkuntzari, Arte-irakaskuntzei eta Kirol-irakaskuntzei buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen du, eta ikasketa horien antolamendu orokorraren zenbait alderdi egokitzen ditu. Aipaturiko Dekretu biek aldatu egin zuten urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretua, Goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena, zeinek 7. artikuluan ezartzen duz, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 58.3 artikuluan aipatzen diren goi-mailako arte-irakaskuntzetako ikastetxeek Goi-mailako Arte Irakaskuntzen Gradu tituluak eta Arte Irakaskuntzen Master tituluak lortzeko irakaskuntzak eskaini ahal izango dituztela.

Musikako goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuak autonomia pedagogiko, antolakuntzako eta kudeaketako maila handia aitortzen die goi-mailako ikastetxeei, irakaskuntza-, interpretazio-, ikerketa- eta jakintzaren zabalkunde-jardueretan aritzeko, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko goi-mailako ikastetxe gisa dituzten eginkizunak betetzen dituztela bermatzeko.

Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzek lanbidean jarduteko prestakuntzara bideratutako oinarritzko prestakuntza eta prestakuntza espezifikoa biltzen dituzte. Helburu hori lortzeko, ikasketa horiek modu integratzailean garatu behar dituzte gaitasun artistiko, zientifiko eta teknologikoak. Horretarako, ikasketa-planek espezialitate bakoitzerako definitutako curriculumak eta lanbide-profilak jaso behar dituzte.

Ekainaren 25eko 368/2013 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzak Konposizioa, Zuzendaritza, Interpretazioa eta Pedagogia espezialitateetan arautzen dituenak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetako espezialitate horiei dagokien ikasketa-plana ezartzen du, zeina abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu baitu, eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua arautzen duten printzipio orokorren arabera ezartzen ditu.

Ikasketa-plan hori aplikatzean, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak plan hori optimizatzeko lan egin du; zehazki, ikasketa-planen helburua profil lehiakorra eratzea izan da, adarkatze ugariarekin; prestakuntza zabala eta askotarikoa, gaitasun musikal eta psikopedagogiko zabalak eskuratu eta garatu ahal izateko, edozein gradu-tituluren berezko beste batzuk ahaztu gabe (teknologikoak, sozioemotionalak, kognitiboak, metodologikoak, linguistikoak).

Hala ere, espezialitaterako definitutako lanbide-profilek eta sektorearen egungo eskariei gomendatzen dute Pedagogiako espezialitatearen ikasketa-plana egokitzea, prestakuntza didaktikoari eusteko eta Musikenek Interpretazioko espezialitatean eskaintzen dituen instrumentuen artean hautatutako musika-prestakuntzarekin osatzeko.

Musika-hizkuntzari eta musika-hezkuntza goiztiarri zuzendutako konpetentzia berriak eskuratzeko aukerak, egungo curriculumean jasotakoei gehituta, profil polibalenteagoa eta egungo beharretara hobeto egokitutakoa eraten du. Diziplina anitzeko profila, lan-merkatuak esparru horretan gaur egun dituen beharrei erantzungo diena eta erronka berrietara egokitzeko aukera gehiago izango dituena.





Bestalde, eta kontuan hartuta irakaskuntza horietan amaitu duten ikasle gehienak irakaskuntzan sartzen direla lan-munduan, komeni da Konposizioa, Zuzendaritza eta Interpretazioa espezialitateetako ikasketa-planak osatzea, graduiko ikasketen azken ikasturtean prestakuntza pedagogikoarekin.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, xedapen arauemailearen proiektuan kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren webgunearen bidez, eta etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da bertan.

Kontsultak alderdi hauek izan behar ditu:

- A) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- B) Onartzeko beharra eta egokitasuna.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Hori dela eta, xedapen orokorra egin aurreko kontsulta-izapidea bete nahi da, arauaren eraginpeko herritarrek eta erakundeek parte hartu eta ekarpenak egin ahal izan ditzaten proposatzen den arauan.

Horregatik guztiatik, kontsultak:

- Etorkizuneko araudi honen eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko, pertsona fisiko eta erakunde, entitate edo elkarte guztiei irekita dago.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamar egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta haien erakundeek egoki irizitako iradokizunak edo oharrak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori, beraz, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena da. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11.1 artikulua arautzen duen hasiera-fasean.

Horregatik guztiatik, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

## **EBAZTEN DUT**

Lehenengoa. – Jendaurrean jartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko musikako goi-mailako arte-irakaskuntzak, Konposizio, Zuzendaritza, Interpretazio eta Pedagogia espezialitateetan, arautzen dituen ekainaren 25eko 368/2013 Dekretua aldatuko duen xedapen orokorraren proiektua egin aurretik.

Bigarrena. – Arauak eragiten dien herritarrek eta erakundeek, nahi izanez gero, hamar egun balioduneko epea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, agindu honetan planteatutako alderdiei buruz dituzten iritziak helarazteko.

Jokin Bildarratz Sorron

**HEZKUNTZAKO SAILBURUA**